



# BERTSO AGENDA

2025 / OTSAILA - MAIATZA




SANTA ESKEA - ABRA SARIA - KANPOMARTXO - ESKOLATIK PLAZARA

# ALGORTAKO BERTSOLARI ESKOLA

[www.albe.eus](http://www.albe.eus)

SARE SOZIALAK

 albe\_bertso

 @albertsolari

 Algortako Bertsolari Eskola

HARREMANETARAKO

Martikoena 16, 2. solairua, 2. bulegoa  
Algorta (Getxo)  
48992 Bizkaia

605704385

albegetxo@gmail.com

Diseinua: KermanDF

Laguntzaileak:





- 4** EKITALDIAK
- 8** UDABARRIA BERTSOTAN
- 9** BALENDIN ENBEITA  
BERTSOPAPER LEHIAKETA
- 10** ARGAZKI GALERIA

-  *Jaialdia*
-  *Berezia*
-  *Bertso jira*
-  *Txapelketa*
-  *Bertso otordua*

## OTSAILA

4

MARTITZENA  
SANTA ESKEA

9:00 GETXO

Aspaldiko ohitura da Euskal Herrian Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, kale-baserrietara kantuan irtetea, koplak eta bertsoak abestera.

Getxon aspalditik batzen gara -askotan Lauaxeta euskaltegikoekin batera- eta udalerriko baserrietara joaten, maki-lak hartuta, koplak zaharrak eta berriak abestera.

Jaitsi kantapaperak esteka honetatik:  
<https://labur.eus/Santaeskea>



2023ko Santa eskea / albe.eus

- 9:00 AEK-ko Lauaxeta euskaltegian hasi eta Fadura atzeko baserrietan ibiliko gara
- 15:00 Algortako Gure Toki jatetxean bazkaria
- 17:00 Getxoko Bentatik abiatu eta Andra Mari inguruan buelta

Bazkarirako izena emateko epea: otsailaren 1a  
(605704385 / albegetxo@gmail.com)

## OTSAILA

22

## ZAPATUA

## XXIV. ABRA SARIA

18:00 ALGORTA

## Bertsolariak:

Peio LAGO  
Haira AIZPURUA  
Janire ARRIZABALAGA  
Naia ARRIZABALAGA  
Ekhiñe ZAPIAIN  
Kelmene ABAITUA  
Jon MENDILUZE  
Eukene DE LOS AIRES



ABRAKI oroigarria Aitor Zumalabek diseinatu zuen eskolaren logoan oinarrituta eta sariketako parte hartzaile guztiei ematen zaie. / albe.eus

Abra sariketa 2002an sortu zen Euskal Herriko bertsolari gazteei plazarako saltoa ematen laguntzeko, eta ordutik urtero jokatu ohi da Getxon.

2015ean, ALBERen 35. urteurrena dela eta, sariketa berezia egin zen eta ordura arteko txapel-dunek makila jokatu zuten.

Aurten formatua berrituz dugu: bi kanporaketa saio egingo dira, 18:00etan Abian elkartearen eta 19:30etan Salsidu tabernan. Finala 21:00etan jokatuko da Azebarri kultur txokoa.



MARTXOA

28

BARIKUA

BERTSO AFARIA



21:00

ALGORTAKO MUGARRI  
TABERNA

Bertso otordu honi 'klasikoa' deitu ohi diogu, tematikotik bereiztearren, baina funtsean bertso bazkari edo afari tradizionala dugu.

Aurreko urteetan bikote paregabeen bertsoekin gozatu izan dugu: Amets Arzallus eta Saioa Alkaiza, Miren Amuriza eta Nerea Ibarzabal, eta Sustrai Colina eta Jone Uria.

Aurten Maialen eta Unai datoz kantura, eta ziur gaude goi mailako saioaz disfrutatuko dugula.



2024ko bertso bazkaria Bentan / albe.eus

**Bertsolariak:**

Maialen LUJANBIO  
Unai ITURRIAGA

APIRILA

5

ZAPATUA

aek

XXX. ESAERA ZAHARREN  
TXAPELKETA

11:00

SOPELA

Uribe Kostako AEK-k antolatuta, eta udalerriko talde eta elkarte askok lagunduta, dagoeneko tradizio handia duen ekitaldia da hau.

ALBEkideen bertsoen bitartez ematen diren lorratzei jarraiki, atsotitzak asmatzean datza txapelketa arrakastatsu hau. Lehen fasea goizez egin ohi da, tabernaz taberna eta musikaz lagunduta. Bazkaria Artadi garagardotegian izango da 15:00etan, eta ostean, talde finalistek bigarren faseari ekingo diote, bertsolari gonbidatuen bertsoei adi.



2019ko txapelketa / Hiruka.eus

**Bazkalosteko bertso saioa:**

Libe GOENAGA  
Asier ALCEDO

Anima zaitetzte parte hartzera!

Informazio gehiago [www.aek.eus](http://www.aek.eus) webgunean.

APIRILA

6



DOMEKA

## KANPOMARTXO EGUNPASA

**13:30** GOIHERRI AUZOA

Erandioko Berbots talde euskaltzaleak egindako lan handiaren fruitu duzue egun osoko erromeria hau. 1994. urtean berreskuratu zuten euskaldunak eta euskaltzaleak batzea helburu zuen ospakizuna.

Ordutik huts egin barik egiten da, Erandioko auzoetan txandaka, eta bertsoa ez da inoiz falta izaten, ALBEkook BERBOTSeoekin daukagun harreman sendo eta historikoari esker.

Aurtengoa ere ez da makala izango!



**Bertsolariak:**

Unai MENDIBURU

Amaia ITURRIOTZ



Onintza Enbeita eta Peru Vidal 2024ko saioan kantuan / albe.eus

MAIATZA

5

ASTELEHENA

## ESKOLATIK PLAZARA

**10:00** GETXOKO PORTU  
ZAHARREKO LANDA

Tradizio luzeko saio honen helburua Getxoko ikastetxeetan urtean zehar bertsolaritza ikasten diharduten ikasleei bertso plaza erreala-ren panoramika eskaintzea da.

Ekitaldian eliteko bertsolariak eta harrobikoak elkarren ondoan aritzen dira, bertsolaritzako ikasleak hartzaile zuzen eta protagonista direla, Nahikari Ayo bertso irakasleak koordinatuta.

Aurtengo saioak eszenatoki berezia izango du, maiatzean Portu Zaharrean altxatuko den Gure Zirkuaren karpán egingo baita!



Getxoko bertsolaritza ikasleak iazko saioan / albe.eus

### Bertsolariak:

Peio LAGO

Ane LABAKA

+ ALBEko bertsolari gazteak

MAIATZA

18

DOMEKA

## GETXOKO ANDRA MARIKO JAIK

**12:30** KIROLDEGIKO  
APARKALEKUA

Antzinatik izaten dira bertsoak Getxoko Andra Mariko Isidro Deunaren jaietan; behinola meza osteko giroan, eta gaur egun gazte saltsan. Udako jaietako bertso saioen txupinazoa izaten da hau.



2022ko Andra Mariko jaiak / albe.eus

### Bertsolariak:

Pauel LOIZAGA

Aritz LANDETA

Imanol URÍA

Tomas LACARTA

GJ: Oihan DIAZ

## MAIATZA

UDABARRIA BERTSOTAN  
SAILKAPEN FASEA

Bizkaiko Bertsolari Txapelketa urte birik behin jokutzen da, eta aurten tokatzen da. Maiatzean hasiko da Udabarria bertsotan sailkapen fasea, irailean hurrengo fasea jokatuko da eta finala abenduaren 20ean egingo da Bilbao Arenan.


Bizkaiko bertsogintza osasuntsu dago. Bertsolari asko eta onak dabiltza plazarik plaza. Gazte berriak ere sartu dira zaharragoen zirkuituan. Neskak inoiz baino indartsuago ari dira bertsotan. Gure eskualdea, zorionez, ez dago dinamika zoragarri horretatik aparte.

Aurreko txapelketan finalaurrekoetara eta finalera heldu ziren bertsolariek ez dute maiatzeko sailkapen fasean parte hartu beharko, zuzenean iraileko saioetan kantatuko dute. ALBEko bertsolarien artean, Unai Mendiburu eta Jone Uria zuzenean sailkatu dira hurrengo fasera.

## FINALA

BILBAO ARENA

ABENDUAK 20



ALBEko Naroa Torralba 2023ko Udabarria Bertsotan kantuan / bertsozale.eus



MAIATZA

2

ASTELEHENA

## XVI. BALENDIN ENBEITA BERTSOPAPER LEHIAKETA

ALBEk urte birik behin eraturako bertsopaper lehiaketa entzutetsua. Bertsosortak bidaltzeko epea: **maiatza-ren 12tik irailaren 30era**.

Hemen dituzu oinarriak:

<https://labur.eus/balendin2025>



## LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOAK

1930ean Bertsolari Txapelketa bat jokatu zen Getxon, eta Balendin Enbeitak irabazi zuen. 59 urte geroago, ALBEk bertsopaper lehiaketa bat sortu zuen, Getxoko Udalaren eta Kultur Etxearen laguntzaz, eta Balendin Enbeitak ipini zion izena, Muxikako bertsolari ezagunaren omenez.

Hasieran urtero jokatzeko zen Balendin Enbeitak bertsopaper lehiaketa, eta bertso jartzaile askok hartzen zuten parte. Orduko edizioetan helduen eta gazteen artean gain, bertso eskolen atala ere egon zen, taldeka parte hartu ahal izateko. Sariak handiak izaten ziren, bai dirutan, bai materialetan. Sari emateak ere arranditsuak izaten ziren, eta Neguriko futbol zelaiaren ondoko Errota Zaharra jantzetan egiten ziren, bazkari eder baten inguruan. Lehenengo bost edizioetan saritutako bertsoak liburu batean argitaratu ziren.

Gaur egun lehiaketa urte birik behin egiten da. Egitura bakundu egin da eta sail bi baino ez daude: helduak eta gazteak. Baina sariak eta parte hartzeak handiak izaten jarraitzen dute. Sari ematea urte amaierako ALBE GALAn egiten da, bertso festa eder baten bitartez.



2023. urteko irabazlea, Ane Labaka / albe.eus

Bertsogile askok jantzi dute lehiaketa honetako txapela, Honahemen azken urteetakoak: 2017an Fredi Paia helduen mailan eta Julene Iturbe gazteen mailan; 2019an Eneko Fernandez helduen mailan eta Peru Irastorza gazteen mailan; 2021ean Aner Euzkitze helduen mailan eta Naia Arrizabalaga gazteen mailan; 2023an Ane Labaka helduen mailan.

Animatu zuek ere lehiaketa historiko honetan parte hartzera!



BIHOTZA GAZTE 2024





ALBE GALA 2024



ERANDIOKO JIRA 2024





**ALBE**  
**Algortako  
Bertsolari  
Eskola**

